

GIZARTE SEGURANTZAREN JUBILAZIO PENTISIO EREDUA ARRISKUAN EGON DAITEEKEELAKO

Pentsio fondo osagarria eratuko du Parisko Gobernuak

■ Erretiro pentsioak ordaintzeko, lanean dihardutenen kotizazioak erabiltzen ditu gaur egun Gizarte Segurantzak (GS). Gerora, jublatu gehiago eta langile gutxiago egongo denez, diru arazoak izan ditzake GSk, eta horregatik fondo osagarria eratu du Parisek.

Erredakzioa / Donostia

FRANTZIAKO Gobernuak pentsio fondo osagarri publikoa eratzea erabaki du. Heldu den urtean jarriko dute abian fondo hori, eta epe erdian eta luzean Gizarte Segurantzak izan ditzakeen diru arazoei aurre egitea izango du helburu.

Uneotan, erretiroan dauden langileen pentsioak lanean dihardutenek ordaindutako kotizazioetatik ordaintzen ditu Frantziako Gizarte Segurantzak. Hogei urte barru, ordea, gizarte babeserako sistema publikoak finantziario arazoak izango ditu, erretiroan egongo diren kopurua handitu eta kotizatzaileena, aldiz, urritu egingo delako. Hiru hamarkada barru, erretiroan egongo diren herritarrak langileak baino askoz ere gehiago izango dira Frantzian, populazio prebisioren arabera.

Gauzak horrela, babes sistema osagarria abiatuko duela iragarri zuen atzo Frantziako Gobernuak. Fondo hori publikoa izango da. Kutxa horren diru iturri nagusia aurrezki kutxa publikoen erreforma izango da, Dominique Strauss-Kahn Ekonomia ministroak esan duenez.

Pentsio fondo osagarria duela bost urte sortutako Zahartzarorako Elkartasun Fondoan sartuko da. Pentsio fondo osagarriaren kudeaketa administrazio batzorde baten esku egongo da. Gobernuak hainbat ministrok osatuko dute batzorde hori, eta zuzendaritza taldearen buru Gobernuak izendatutako norbait jarriko dute. Gizarte eragileen ordezkariak ere egongo dira fondoan (enpresari taldeak eta sindikatuak).

Aurrezki kutxa publikoen erreformatik aterako dira pentsio



Hiru hamarkada barru, erretiroan egongo diren herritarrak langileak baino askoz gehiago izango dira Frantzian.

JOSE LACALLE

osagarrien fondorako bitartekoak. Horrezaz gainera, Zahartzarorako Elkartasun Fondoak dituen soberakinak eta haien inbertsioetatik eskuratutako interesak pentsio kutxara bideratuko dituzte Zahartzarorako. Enpresa publikoen pribatizazioetatik ateratutako ez ohiko diru sarrerak ere jubilazio pentsioen kutxa hornitzeko erabiliko dituzte. Pribatizazioetatik ateratutako dirua «zailtasunak dituzten konpainiei kapital laguntza emateko erabiltzen da eskuarki, baina litekeena da 2000. urtetik aurrera diru hori beste zereginetarako bideratzea», Strauss-Kahn ministroak zehaztu duenez.

Abiatuko duten pentsio fondo publiko hori gauza berria da Europan. Euskal Herrian, esaterako, pentsio fondo pribatuak baino ez daude.

«Eztabaida plazaratu nahi dugu, banaketan oinarritutako pentsio sistema publikoaren bermeak aztertze», adierazi zuen atzo Martine Aubry Frantziako Enplegu eta Elkartasunerako ministroak, eratuko duten pentsio fondoaren berri emateko. Fondo publiko berriak ez duela pentsio fondo pribatuekin lehiatuko ere esan zuen Aubryk.

Aspalditik Frantziako Gizarte Segurantzaren kontuetan zulo handiak antzeman dituzte Paris-

ko gobernuak agintariekin. Datoren urtean, azken hamabost urteetan lehen aldiz, ordea, diru sarrerak gastuak baino handiagoak izango direla aurreikusita dauka Parisek. Dirusarrerek %2,7 egingo dute gora heldu den ekitaldian, eta gastuek, aldiz, %1,6 egingo dute behera. Erretiroan dauden langileen pentsioak %1,2 altxatuko dituzte datorren urtean, inflazioaren maila berean.

Dena den, osasun sistemaren gastuak zorrotz kontrolatu beharko ditu Parisek, kontuak borobiltzeko. Izan ere, aurrean, osasun zerbitzuen defizita 8.500 milioi liberakoa izango da. X

Irabaziak eta lasaitasuna itzuli dira burtsetara

■ EEBBetako merkatuan, ordea, inbertsioek ezin izan zuten kotizazioen beheraldia gelditu

Erredakzioa / Donostia

IRABAZIAK itzuli ziren Europako finantza merkatuetara atzoko saioan, herenegungo jaitsieraren ondorioak apalduz. Prezio merkeak eta beherago joatea ezinezkoa zela pentsatzeak erosteko joera bultzatu zuten goizetik Europan, eta egun osoan erosketek ez zuten etenik izan. Horrezaz gainera, heregun arratsaldean, Bill Clinton EEBBetako presidentearen aitorenaren bideoa zabaldu ostean, New Yorkeko merkatua suspertu egin zen zertxobait, eta horren eragina atzo

goizean heldu zen Europako merkatuetara. Herenegun %0,5 irabazi zuen Dow Jonesek.

Jardunaldiak ixteko orduan, igoeren protzentaiak handiak ziren. Heregun gehien galdu zutenek irabazi zuten gehien atzo. Euskal Herriko eta Espainiako burtsetan, esaterako, irabaziak %4 ingurukoak izan ziren atzo. Bilbon %3,7 egin zuen gora adierazle nagusiak eta Madrilen %3,48. Herenegungo galerak %5 ingurukoak izan ziren.

Europan ere irabaziak izan ziren merkatu guztietan. Frankfurt, esaterako, 53,2ko igoera

izan zuen, Londresek %2,3koa, Milangoak %4,3koa eta Pariskoak %0,16koa.

Aurreko egunotan galera handiak jaso dituzte banku alorreko akzioek gora egin zuten atzo. BBVk %10 inguru irabazi zuen eta Banco Santanderrek %7,9. Dena dela, aurreko hilabeteetako jaitsierek arrastoa utzi dute banketxe horien kotuetan. BBVk irabazi prebisiok jaitzi egin ditu dagoeneko. Hego Amerikan aurreikusitakoa baino 9.000 milioi pezeta gutxiago irabaziko ditu aurrean BBVk, eta egoera okertu eta debaluazioak gerta-

tzen badira, kopuru hori 11.000 milioi pezetara ere iritsi daiteke.

Wall Street, ordea, jaitsierak izan zituzten atzo. Clinton eta Keizo Obuchi Japoniako lehen ministroak bilera egin zuten atzo, eta merkatuak bilkuraren emaitzen zain egon ziren. Asiako herri horretako ekonomiaren gainean akordioaren bat erdietsiko zutela espero zuten inbertsioek. Banketxeen legearekin Japoniako gobernuak prestatutako arau berria ez da oposizioaren gustukoa izan, eta baliteke Gobernuak, azkenean, erreforma horiek aurrera ezin eraman izatea. X

laburrean

■ Gasolinaren prezioak bi aste barru liberalizatuko dituzte

HIDROKARBURUEN inguruan joan den astean Madrilgo Diputatuen Kongresuak onartu zuen legea bi aste barru jarriko da martxan. Industri Ministerioak atzo jakinarazi zuenez. Ministerioak lege hau BOEn ahalik eta arinen publikatzea nahi du, gas eta petroleo deribatuak liberalizatu asmoz. BOEn agertzen denean, gasolinaren prezio maximoak desagertu egingo dira, eta gasolindegiek mugarik gabe ezarri ahal izango dituzte prezioak zerbitzugune bakoitzean. Ez Madrilgo gobernuak, ez enpresek, ez adituek, ez dute uste gasolinaren prezioek nabarmenki gora egingo dutenik. Halere, gune bakoitzean ezberdintasunak egon daitezkeela aurreikusten dute. X

■ «Kalitatea fundazioa» martxan jartzeko 278 milioi pezeta emango ditu Eusko Jaurlaritzak

GASTEIZKO Gobernuak kontseiluak onartu berri du nekazal produktuen kalitatea bultzatzea helburu duen «Kalitatea fundazioa». Lan horretan hasteko 278 milioi pezeta jarriko ditu Eusko Jaurlaritzak. Fundazioaren egoitza Abadiñoko Udaletxea izango den arren, bere ekimenak EAE osora zabaltzeko asmoa du. Fundazioaren buru izango dira Eduardo Urrutia Nekazaritzako kontseilariordea, Jon Legarreta Bizkaiko Diputazioko Nekazaritza zuzendaria, Salvador Gorostola Gipuzkoako Diputazioko Nekazaritza burua eta Jose Antonio Ocio, Arabakoa. X

■ Sei euskal enpresa Filipinak eta Taiwanera joango dira merkatal harremanak bultzatzera

SEI EUSKAL ENPRESA Filipinak eta Taiwanen izango dira urriaren 14tik 23ra bitartean. merkatal harremanak bultzatzeko. Bidaia hau EAEko Merkatal Ganbarek urtean zehar harreman komertzialak mantentzeko atzerriara egiten dituzten bidaien barnean kokatzen da. Filipinak eta Taiwanera joango diren enpresak Tubacex, Inoxbar, Agrymin, Goizper, Evia Horniketarak eta Hozkailu Ekipo konpaktoak dira. Merkatal Ganbarako ordezkariak adierazi zuten, une hau ez da egoiena lurralde horiekin merkatal harremanak izateko. egun dagoen krisi ekonomikoa dela eta, baina krisia bukatzen denean oso merkaturu interesgarriak izan daitezkeela gehitu zuten. X